

Ekaineko banka-produktu nagusien komertzializazioa iaz hilabete berean baino handiagoa izan da

Kutxabankek 137,6 milioi euroko irabazia lortu du, zuzkiduretara 187,3 milioi bideratuta

- Ekainean % 9,9 hazi dira mailegu-hipotekarioak, % 4,9 kontsumorako maileguak, eta % 14,4 aseguruak sortutako sarrerak
- Mailegu-inbertsio produktiboa % 4,1 hazi da urtebetean, banka korporatiboak eta instituzionalak sustatuta
- Inbertsio-fondoan eskurapenetan merkatuko lider da Kutxabank, 985 milioi euroko harpidetza garbiekin. Kudeatzaileen rankineko bostgarren postuan kokatu da
- Alorreko berandutze-tasa baxuenetakoa izaten jarraitzen du, % 2,87, aurten oinarriko 11 puntu hobetu ostean
- Kaudimenean alorreko buruan segitzen du, % 17,2ko ratioarekin, eta krisiak gehien jotako alorrekiko menpekotasun txikienetakoa du

2020ko uztailaren 30ean. Kutxabank Taldeak **137,6 milioi** euroko irabazi garbia lortu du urteko lehen sei hilabeteetan, iaz garai berean baino % **30,3** gutxiago.

Emitza hau horniduretara **187,3 milioi** euro bideratu ondoren lortu da, 2019ko ekainean baino **72 milioi** gehiago. Zuzkidura hau, hein handi batean ziurgabetasun-egoerari aurre egiteko gordeko da.

Negozioaren bilakaera erabat baldintzatu du Covid-19ak. **BPG** eta **langabeen kopurutasak** nabarmen okertu dira, finantza-merkatuak **lurrunkortasun eta ziurgabetasun handiak** jota daude, eta ezin da jakin gobernuek, EB-k eta banku zentralak hartutako erabaki eta neurriek zernolako eragin zehatzak izango dituzten.

Urteko lehen bi hilabeteetan, Bankuak bere buruari ipinitako helburuak betetzea lortu zuen, baina gizarte osoaren etxeratzeak aurrekaririk gabeko geldialdi ekonomikoa sortu zuen.

Nola nahi ere, seihilekoko jardueran jaitsierak nagusi izan arren, **ekainean taldearen jardura komertzialean berreskurapen zantzuak** sumatu dira. Hain zuzen ere, banka-

produktu nagusiek hilabete horretan izan duten bilakaera, iaz garai berekoaren gainetik kokatu da jadanik.

Honen erakusle da **mailegu-hipotekarioak** ekainean % **9,91** hazi izana iazko ekainarekin alderatuta, % **4,87 kontsumorako maileguak**, eta % **14,4 aseguru en negozioak** sortutako sarrerak.

Balantzetik kanpoko produktuen bilakaera are eta nabarmenagoa izan da, eta Taldea harpidetza garbietan **lider** izan da krisialdiak iraun duen bitartean.

Ekainean bertan, fondoetan izaniko harpidetza garbiak iaz hilabete berean baino **lau aldiz handiagoak** izan dira, eta zorro-delegatuetan **bikoiztu** egin dira. Bultzada hau erabakigarria izan da **negozio sareek Administraturiko Baliabideak** urtebetean % **7,2** hazteko.

Igoera nabaria izan duen beste alorretako bat **mailegu-inbertsio produktiboa** izan da, **urtebetean % 4,1** goratu baita, banka korporatiboak eta instituzionalak sustatuta, ICO-ren eta Elkargiren bermearekin egin diren eragiketez gain.

Krisiari erantzuteko egoera onean

Testuinguru zail honetan, Kutxabankek **oinarriko egoera oso sendoa** duela, eta krisialdiak sortutako eraginei erantzuteko **ongi kokatua** dagoela erakutsi du.

Bere kaudimen egoerari dagokionean, **pandemiak gogorren jo dituen alor ekonomikoekiko menpekotasun murrizta** du.

Bere negozio-ereduaren sendotasunari dagokionez, **finantza-agintariek** eta **merkatuak** onetsi diote behin eta berriz.

Esaterako, **EBA** Europako Banka Agintaritzak berriki egin duen gardentasun ekitaldiak, **seigarren urtez jarraian** Kutxabank izendatu du Estatuko **kaudimen-egoera onena** duen bankua. Horrez gain, The Banker aldizkari ospetsuaren esanetan Espainian jarduera esanguratsuena duen bankua Kutxabank da, lider baita kaudimenean, palankatze-egoeran eta aktiboen kalitatean.

Hain zuzen ere, Taldearen **kaudimen osoa** eta Core Tier I ratioa Espainiako finantza-sistemaren buruan dira, % **17,2ko** indizearekin.

Merkatuak bere kudeaketa-ereduan duen **konfiantza** balantzetik kanpoko baliabideen eskutik iritsi da, batik bat **inbertsio-fondoekin, zorro-delegatuekin eta aurreikuspen planekin**. Alor honetan, harpidetza berrietan zuen lidergoa sendotzea lortu du Kutxabankek.

2020ko lehen sei hilekoan harpidetza garbietan bolumen handiena lortu duen Taldea izan da, guztira **985 milioi** euro. Honela, aurrez zuen **merkatu-kuota % 6,28raino** handitzea lortu du, aurten oinarriko 50 puntu aurreratu eta gero. Honekin guztiarekin, merkatuko **bostgarren kudeatzaile** handiena da.

Berankortasun maila **% 2,87raino** murriztu da sei hilekoaren amaieran, finantza-alor osoko txikienetakoa da, eta aurten oinarriko 11 puntu hobetu da. Honek bere mailegu-zorroaren kalitatea baieztatzen du, finantza-alorreko batezbestekoa baino hobea.

Beste kudeaketa-adierazleetan ere hobekuntzak izan dira. Errentagarritasunak ere hobetzen jarraitu du. **ROTE % 5,7koa** da, eta **% 0,5ekoa ROA**. **Eraginkortasunari** dagokionez, indizea **% 53,5ean** finkatu da.

Beraz, ziurgabetasunik gabeko egoera honi aurre egiteko oinarri sendoak ditu Kutxabankek kaudimenean. Aktiboen kalitatean maila garaia du, eta merkatuen konfiantza dauka.

Familiei eta enpresei laguntzen

Gizarte ikuspegiko jardueran, urteko lehen erdian osasun-krisialdiak jotako norbanako, familia eta enpresei laguntzea izan da Kutxabanken lehentasuna.

Horretarako **neurri-zehatzez** osatutako ekimen ugari jarri du abian, administrazio publikoek eskaini dituzten laguntza-ildoekin bat egiteaz gain.

Etxebizitzaren arloan, **1.000 milioi euro** kudeatu ditu **12.000** eragiketatan. Hauen helburua hipoteka-zordunak babestea izan da. Horretarako, beren eskuetan ohiko etxebizitzaren hipotekak ordaintzeko **geroratzeak** ipini dira.

Gainera, egoerarik zailenean zeuden enpresei finantzazioa bideratzeko **2.500 milioi** eurotik gorako ildoak zuzendu du. **Autonomoentzako** ere finantzazio-baldintza berezietako ildo-bereziak sortu ditu, hauetako batzuek **BBK eta Vital** Banka-fundazioekin elkarlanean. Aurrez emaniko maileguetarako **26.000 milioi** euro ere jarri ditu finantza Taldeak.

Emaitzen kontua

Emaitzen kontuan, **'Core' sarrerak % -2,8** jaitsi dira, eta **519,7 milioi** eurotan kokatu dira, batik bat interesen marjinan **tipoen bilakaerak**, eta komisioetan jardueraren **geldialdiak** izan duten eraginarengatik.

Balantzetik kanpoko produktuen balorazio baxuek **zerbitzuen-sarreraren** ohiko hazkundera oztopatu dute, eta **aseguruek** sortutako sarrerak **% 1,8** hazi dira.

Inbertsio fondoan, pentsio fondoan eta BGAEen **gordailuizana** Cecabanken eskuetan utzi zen, eta Beste Ustiapen Emaidzak atalean ikus daiteke.

Emaidza ez-errepikari hau mailegu-estaldurak indartzera eta aurre-erretiroa hartu duten **170 lagun**en kostuak hornitzera bideratu da. Zuzkiduren atala **187,3 milioi** eurokoa izan da honenbestez, iaz garai berean baino **72 milioi** euro handiagoa.

Inbertsio-zorroaren ekarpen errepikariekin eta ustiaketako beste emaitza batzuekin **Marjina Gordina 678 milioi** eurora arte goratu dute, **% 22,7ko** hazkundearekin.

Administrazio gastuek murrizten jarraitu dute, **% -3,8** lehen seihilekoan, eta amortizazioen atala **% 3,8** hazi da, Bankua pandemiaren ingurumarian egiten ari den inbertsio digital garrantzitsuengatik.

Ustiapen Marjina % 60,2 hazi da, guztira **361,6 milioi** euro.

Emaidzen fiskalitatea aintzat izan ondoren, Taldearen **etekin trinkoa 137,6 milioi** eurokoa izan da, iaz garai berean baino **% -30,3** txikiagoa.

Kutxabank Taldearen emaitzak, 2020ko ekainean

Milioi euro	2020ko ekaina	% Δ
Interesen Marjina	272,6	-3,4
Komisioak eta aseguruak (*)	247,1	-2,1
Banka negozioaren 'core' sarrerak	519,7	-2,8
Dibidenduak eta baliokidetasuna	37,0	12,2
FOE	-4,2	e.a.
Beste Ustiapen Emaidzak (*)	125,4	e.a.
Marjina Gordina	678,0	22,7
Administrazio Gastuak	-288,6	-3,8
Amortizazioak	-27,8	3,8
Ustiapen Marjina	361,6	60,2
Saneamenduak eta narriadurak	-187,3	61,9
Beste irabazi eta galerak	6,3	-94,1
Zergen aurreko emaitza	180,6	-16,7
Emaidzak eta bestelakoak	-43,0	e.a.
Taldearen emaitza	137,6	-30,3